

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Etxebarriko Udala****Etxebarriako Hiria Antolatzeko Plan Orokorren aurrerakinaren jendaurreko erakustaldia.**

Apirilaren 24ko 22/2017 alkate-dekretoz, ondorengo hau erabaki da:

«Etxebarriko Hiria Antolatzeko Plan Orokorra egiteko ardura duen teknikari lan-taldeak Aurrerakin dokumentua idatzi du. Bertan, plangintzaren irizpideak, helburuak eta inarrizko konponbide orokorrak jasotzen dira, behin betiko dokumentua udal gobernuak jarritako irizpide eta artezpideen arabera egiteko.

Kontutan izanik Euskal Herriko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 87.1 eta 90.3 artikuluetan ezarritakoa, esleituta ditudan eskumenen jardueran:

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa: Etxebarriako Hiri Antolamendurako Plan Orokorren aurrerakina jendaurrean jartzea. Jendaurreko erakustaldi hau bi hilabeteko epea izango du, bere iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan, iradokizun eta alternatibak aurkez daitezke, Euskal Autonomi Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90.3. artikuluan adierazitakoari jarraiki.

Bigarrena: Erabakia dagokion tokietan iragarri herriak horren berri izan dezan.

Hirugarrena: Dokumentuaren kopia digital bat bidaltzea Etxebarria udalerraren mugakide diren ondoko udalerrri hauei: Eibar, Elgoibar, Mutriku, Mendaro eta Markina-Xemein.

Etxebarrian, 2017ko apirilaren 24an.—Alkatea, Jesús Iriondo Lejardi